

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LAUDIOKO UDALA

#### HIRI ETA LANDA GARAPEN ARLOA

Zerbitzua: Hiri Garapena

#### **HAPOn 42. aldaketa, merkataritza-erabilerak ezartzeko 3. poligonoko 0263 katastro-lurzatian, egungo Z. I.6b "Tubacex" eremuan**

Denon ezaguerarako jakinarazten da jarraian azaltzen dela udal honetako Udalbatzarrak 2021eko uztailaren 26an egindako osoko bilkuran hartu duen erabakiko xedapenenen atala:

"Lehenengoa. Hasierako onespena ematea Laudioko HAPOn 42. aldaketa puntualari, erabilera berezien araubide bat ezartzeko Z. I.6b eremu horretarako. Bertan, "baimendutzat" joko da txikizkako merkataritza-erabilera, 10/2019 Legeak ezarritako mugen arabera zehaztua -poligonoaren erabilera nagusiaren osagarria, eremuko hirigintza-eraikigarritasun osoaren ehuneko 30 gainditu ezin duena- eta, horretarako, 2.1.7 bis baimenduak izeneko artikulua berri bat sartuko da. Tubacex izeneko Z. I.6b eremuan baimendutako erabileren taula.

Bigarrena. Erabaki hau eta HAPOn aldatzeko espedientea jendaurrean jartzea eta iragarkia Udalaren ediktu-oholean hilabeteko (1) epean, ALHAOn eta Araban hedapen handiena duen egunkari batean argitaratuz, azken argitalpenaren biharamunetik zenbatzen hasita.

Hirugarrena. Adieraztea, jendaurreko informazioaren emaitza ikusita, eta alegazioei erantzun ondoren, Udalbatza honek behin-behineko onspenari buruzko ebazpena emango duela, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari nahitaezko irizpena eskatzeko".

Espedientea lanegunetan egongo da ikusgai, goizeko 9:00etatik 14:00etara, Hiri eta Landa Garapen Arloko Bulegoan, Herriko Plaza, z/g 3. solairuan.

Laudio, 2021eko irailaren 7a

*Alkate-udalburua*

*ANDER AÑIBARRO MAESTRE*